

JOSE MARI ZABALA

``Écfrasis''

Bideolanak 1986-2016
06-02-2016

Komisarioa: Leire Vergara
CarrerasMugica

Écfrasis Bideolanak (1986-2016).

Jose Mari Zabala

2016ko ekainaren 2tik irailaren 9ra, CarrerasMugicak Jose Mari Zabalaren *Écfrasis Bideolanak 1986-2016* erakusketa aurkeztuko du, Leire Vergara komisarioaren eskutik. 1986. eta 2016. urteen artean eginda daude erakusketarako hautatako bideo-lanak. Erakutsitako obren artean hiru instalazio ditugu: bat *Videographos* (1986) izeneko bideo-erretretuen seriearekin, eta beste biak lan berriei, hain zuzen, *Hondartza* (2014-2016) eta *Mendibil-go Magnolia* (2015-2016) lanekin. Lan horiekin batera, hiru programa erakutsiko dira monitorean, 1986. eta 1999. urteen artean bideoan egindako film labur batzuekin.

Jose Mari Zabalaren erakusketa azken 30 urteetan egindako artelanen multzo baten inguruan dabil jira-biran. Ikus-entzunezkoa erabiliz berehalakoa eta egunerokoa denak dituen aukerei eskainitako ibilbide artistikoa ageri da artelan guztietan. Irudi-hartze luzeak oinarritzat hartuta, eta batzuetan ustekabeko hartzeak edo baztertzekotzat jo litezkeenak ere bai, Zabalaren obrak irudiaren ahalmenean ikertzen du, narrazio-estrategia generikoak eta irudikatze erregimen konbentzionalak kanonak aintzakotzat hartu gabe. Bideoan egindako lanek lotura zuzena finkatzen dute irudiaren ahalmenarekin, bestelako bitartekotzarik gabe, azkenik, itxura batean funtsik gabea, pribatua eta partikularra dena formulazio abstraktu gisa azaldutzeko. Eraldatze-prozesu hori agerian jarritz, erakusketako artelanetako batzuek orainaldiko eremu ikusgarriara ekartzen dute lehenaldia; beste zenbaitek oraindik zintzilik dagoen denbora batera proiektatzen dute orainaldia. Denbora horrek etorkizunean erakutsiko du bere ahalmena. Horren arabera, irudietan bizitako denbora desberdinen artean gurutzatze dialektiko bat marraztea proposatzen da erakusketan. Nolanahi ere, badakigu, jakin, irudi horiek, muga ezagunik gabeko denboratasun propioaren eramaileak izanik, alderatzea aldi baterako besterik ez dela.

ERAKUSKETAKO ARTELANAK:

Hondartza (La playa) 3 ordu eta 50 minutu (2014-2016). 40 urtez kanpoan bizi ostean, jaio eta hazitako lekuetara itzuli zen —Irunera eta Bidasoa ibaiaren estuariora— 2004an. Jose Mari Zabalaren arreta piztu zuten lehen alderdietako bat espazioek eta gauzek joandako garaietako memoria bizia gordetzeko zuten gaitasuna izan zen, bai eta aspaldiko garaietako kontserbatzeko ere. Sentsazioek eraikitako gorputz hori proiektu bihurtu zen, Bidasoaren bokaleko ingurua, Txingudiko badian, eta bertan dagoen euskal itsasertzeko eremua barruan hartuta. Laster batean, interesa Hendaiako Hondarraitz hondartzak eskaintzen zituen aukera apartekoetara bideratu zen bereziki, bertako ikur diren atzealdeko bi haitzekin. Dozena erdi urtez horretan ibili ondoren, ustekabea etorri zen: 1896an Lumiere anaiek antzeko lan bat egin zutela jakin genuen. Olatuek haitzen aurka jotzen zuten bitartean, minutu bateko planoak filmatu zuten. Plano horretan ez dago pertsonaiarik, ezta soinurik ere: fenomeno naturala erakusten da soil-soilean garai hartako film-bobina bati dagokion denboran. Instalazio honetan erakutsitako bertsioan, *Hondartzaren* iraupena egunean bi emanalditan eskaintzen da: bata goizean, eta bestea arratsaldean.

Mendibil-go Magnolia (El Magnolia del Parque Mendibil) (2015-2016). Magnolia txinatarra edo magnolia japoniarra (*Magnolia Soulangeana*) Txinatik datorren zuhaitza da, eta bizirik dirauen fosiltzat jotzen dute. Zabalak Mendibil parkean ezagutu zuen magnolia umetan, jaioterri zuen Irunen baitzegoen, familia giroko lehenengo haur-jolasen esparruan. Mendibil parkea oso leku berezia da: hilerria izan zen antzina, zezen-plaza gero, eta, zati bat behintzat,

finka pribatua ere bai, gaur egun den espazio publikoa berriz izan arte. Zuhaitzari dagokionez, neurri batean hainbesteko balioa duen ale bati gaur egun eskaintzen zaion zalantzazko arretak eragindako kezkatik, *Mendibil-go Magnoliaren* hasierako asmoa, behintzat, haren oroimena gordetzea izan zen, urtaroko ziklo oso batean zehar bere bizi-ibilbidea erregistratuz. 2015eko loraldiarekin hasi zen, eta 2016an hostoak erori eta lore-begi berriak ernetzearekin batera bukatu. Hurrenez hurren filmatuta dauden zuhaitzaren adaburuaren eta adarren kontrapikatuko planoek osatzen dute bideoa, noizean behin hegaztiren batek edo errektore baten lorratzak zeharkatutako zerua atzealdean, eta lurzorua mailan testuinguruko bestelako elementu bisualak berariaz kenduta. Izan ere, soinua da zuhaitza leku horretan kokatzen duena, berak ematen digu entzumen-arloko panorama ugaria bereizgarritzat duen inguruneari buruzko informazio guztia: trafikoa hotsa ondoko Irungo saihebidetan, Musika Eskolako ikasgaiak eta entseguak, umeen jolasak, hegazkinen joan-etorria aireportuan...

Videographos (1986) lanaren oinarrian pertsonen behaketa dago, hain zuen, hasiera batean naturaletik ezer gutxi duen ingurune batean —artistaren estudioan— gizakiak fokuen argi zuzenaren azpian behatzea. Hala ere, itxura batean aproposetik hain gutxi duen atmosfera horretan, lagun bakoitza naturaltasunez agertzea daasmo nagusia; hori lortu daiteke, esate baterako, elkarrizketa baten bitartez. Ildo horretan, elkarrizketako gaia eta bertan esan daitekeena erabat bigarren mailakoak izango lirateke. Dena dela, denboraren joanak baliozko alderdiak azaleratzen ditu ustez hutsalak diren ezaugarri horietan, esate baterako, Donostian emandako garai batzuetako ustekabeko erretratu bat.

PROGRAMAK

Donuts 37,12 minutu (1999). 1991n Parisen ezagutu zuen Juan Pérez Agirregoikoa artista, eta programa hau hark egindako proposamen batetik jaio zen 1999an: 15 urte gazteagoa zen Pérez Agirregoikoaren belaunaldiko artista-talde bati lanak bideoan erakustea proposatu zion Zabalarri. Azkenean, bideo-proiektzioko saio moduan antolatu zuten emankizuna, Iñaki Imaz margolariaren Donostiako estudioan. Lanen hautaketa bat egin zen, 80ko hamarkadako etxeko Blaupunkt bideo-kamera batekin eginda baitaude lan guztiak. Berezitasun bezala, alde batetik kamera bera zegoen, Super8ko filmagailu baten oso antzekoa, eta, beste alde batetik, VCR kontsola, mahai-gaineko unitate bezala izateko edota soinean gurutzatuta unitate eramangarri bezala erabiltzeko, oso eroso baitzen ergonomia eta arintasunagatik. Bestalde, bideokamera horren bidez, Zabala era guztietako testuinguruetan barneratu ahal izan zen, ezer aztoratu gabe, oso aintzakotzat hartzen ez zelako, etxerako filmatzaile amateur bati zegokiolakoan. Lan horiek erakutsita, Jose Mari Zabala harremanetan hasi zen 90eko hamarkadaren bukaeran ernetzen ari zen testuinguru artistikoarekin. Harrez gero, loturak sortu izan dira haren planteamendu formalen eta belaunaldi gazteagoek zituztenen artean, eta hori hainbat lankidetzatan gauzatu da.

Programa #2 (2016). Programa hau erakusketarako prestatu da bereziki, eta 80ko hamarkadan egindako lan batzuk jaso ditu, jendaurrean ia erakutsi gabekoak. Etxebizitza baten barruan egindako grabazioak agertzen dira bertan, eta etxeko bizi-baldintzak osatzeko ohiko modua, espazioaren banaketa, argia, eta bestelako gaiak azaltzen ditu zeharka. Beste grabazio batzuk etxebizitza baten terrazatik kanpoaldera eginda daude, espazio publikoa postaleko irudi baten moduan irudikatzen saiatzeko, edo artistaren estudioan bertan hartuta, argazki-saio baterako prestaketak erregistratzeko. Beste batzuk espazio publiko itxietan hartu dira, hala nola *Huelga de bares [Tabernetako greba]* eta *Amanecer en Las Minas*

[*Egunsentia Las Minas*]: istiluen kronika txikiak edo eguneroko errutinetan gertatutako asaldura arinak dira, Zabalaren kamerak ustekabeen jasotakoak.

Maddi 27,18 minutu (1999). Udako jai egun bat jasotzen du bideoak. Senitarteko batzuk iritsi dira Zabalaren etxera. Hain zuzen ere, orain dela gutxi haurtxoa izan duen bere bikote Mariviren iloba. Haurrak Maddi izena du. Etxea nahas-mahasean dago, gela bateko hormak margotu behar baitira, Txinatar Pabiloia izenekoan txakur emeak umetxoa zaintzen duen bitartean. Bazkaldu ostean, senide gehiago iritsi dira, eta kafea hartu dute. Grabazioa 1:30eko kanpaiekin hasi, eta 18:30ekoekin bukatu da. Familiako gertaera txiki hori hartuta, bideoa bera ariketa bat ere bada, Canonen XL1 bideokamera probatzeko balio duena. Hilabete batzuk geroago *Cuba Corazón* [*Kuba bihotza*] dokumentala Kuban filmatzekoerabili zuen. 12 urteko bere alaba Andrea txandaka aritu zen kamera erabiltzen

OHAR BIOGRAFIKOAK

JOSE MARI ZABALA (Irun, 1949)

Ia sei hamarkadatan garatu da Jose Mari Zabala obra, eta hainbat arte-formatu biltzen ditu: pintura, marrazketa, argazkigintza, zinema, bideoa eta soinu-ekoizpena. Formatu arteko ibilbide hori kontu biografikoek eta estetikoek mugatutako kohesio logikoaren emaitza da. Horren harira, artista soinuarekin hasi zen, argazkigintzari eta zinemari heldu zion gero, eta bideoari geroago, beti pintura eta marrazkia ere uztartuz. Batetik bestera igarotze hori ez zen izan denbora-noranzko bakarreko bilakaera; konexioak, zirkulartasunak eta etenak eragin baitzituen, ordea, eta, horrela, obra aberatsa finkatu zuen forma eta gai aldetik.

Oso gazte zela, Jose Mari Zabala sentsibiltate artistikoa garatzen hasi zen soinuaren bitartez. Musikaren alderdi melodikoa baino gehiago, "zarata" izan zen hasierako une horretan Zabala erakarri zuena, eta gaur egun ere oraindik interesatzen zaiona. Berak honela adierazi zuen: "soinu partikularrak eta bereizgarriak, izaki bizidunenak eta fenomeno naturalenak, baita objektu fabrikatuenak eta makinak ere". Une hartan, artistak hurbilen duenera jo zuen, eta etxeko esparruan bertan zeuden bitartekoekin lan egin zuen. Horren harira, etxeko irratia bere esperimentazio artistikoa garatzeko tresna bihurtu zen, soinu-sorgailu edo sintetizadore "avant la lettre" moduan erabili baitzuen. Irrati-seinalea eta berak egindako distortsioak izan ziren jatorrizko une haietan artistikoki lan egiteko Zabalak izan zuen lehenengo materiala. Bigarrenik, urte haietako irratiek izaten zuten "fono" izeneko sarrera erabiliz soinua eskuz anplifikatzea lortu zuen. Era horretan, dimentsio publikoa lortu zuen bere esperimentuetan. Soinuarekiko hasierako interes hori argazkigintzarekin izandako lehenengo harremanarekin batera suertatu zen. Orduan hasi zen Irun hiriko ingurunerik hurbilekoenean irudiak hartzen. Hasierako aldi artistiko hori 60ko hamarkadako urteetan izan zen, erakundeen esparruetatik kanpo egiten ari ziren esperimentazio estetiko prozesuekin batera. Prozesu horiek forma galkorrak hartu zituzten, eta ekitaldi publiko bateko denborazkotasunari lotuta zeuden, "happening" formatua, performancea edo kontzertua bezala. Testuinguru horretan, Jose Mari Zabalak Mikel Laboa ezagutu zuen eta adiskide egin ziren. Haren bitartez, Ez DokAmairuko kide bihurtu zen azkenik. Geroago, *Bat*, *Hiru* albumean elkarlanean aritu zen, eta zenbait doinutan bere gitarra elektrikoa sartu, eta une hartako grabazio-estudioen aukera teknikoak esploratu zituen. Elkarlaneko eta adiskidetasuneko giro hartan, Zabalak soinuaz egindako erabilerak trataera esperimentalak izan zuen beti, ez bakarrik musikala. Hori bera adierazten zuten egin zituen emankizun partikularrek, edo Ez DokAmairuko kide moduan egindakoek, Espainiako Radio Nacionalera egindako irati-konexio batekin hasi ohi zituen horiek. Berak

kontatu zuenez: "ahal izanez gero, ordua aukeratzeko modua baldin banuen, gaueko 10:00ak aukeratzen nuen emanaldia hasteko, garai hartako "Parte Nacional" izenekoarekin konektatzeko: albisteak izaten ziren. Oro har, bateko "Caudilloak" presa bat inauguratu zuelako edo arrantzan atun bat harrapatu zuelako; besteko, komando terrorista bateko kide bat atxilotu zutelako, zirrara eragiten zuen anplifikazio-sistemaren bitartez ("ustekabeko gertaerak" -happeningak- eragiten didan interesa etengabe agertzen da nire egikeran)".

"Zaratarekin" zuen interes hori lehen une batean artistak zinemara eramane zuen eta geroago bideoa. Horretarako, soinuak egoera bat gogora ekartzeko duen gaitasuna ulertu, eta irudimenaren bitartez hura berregiteko aukera eman zuen. Artistari soinuaren interesatzen zitzaiona, eta gero mugitzen ari diren irudiekin ere probatuko zuena, honako hau zen, haren hitzen arabera: "soinuak, baita hitzarenak ere, bere narrazio-literaturako zentzuari uko egitea, bere tinbre-balio soiletara mugatuz". Interes horrekin jarraituz, Zabala zinema ekoizten hasi zen, ikuspuntu erabat esperimental batetik abiatuta. Lehen filma, *Axut*, 35mm-tan ekoitzi zuen 1975ean, eta grabatze- eta muntatze-lanak ia urte eta erdi iraun zuen. Urte horietan, ekoizpen esperimental independenterik ia ez zegoen zineman. Hain zuzen, Jorge Oteiza, Zabala-ren laguna hura ere, harritu egin zen hainbesteko neurria zuen proiektu bat (35 mm-ko film luze bat ekoiztea) abiatzera zihoala jakin zuenean. Azkenean, Veneziako Bienalean aurkeztu eta ikusleen harrera ona izan ondoren, artistaren esku ez zeuden kontuengatik, filma laster gelditu zen proiektatzeko eta erakusteko zirkuitu publikoetatik kanpo, eta, hori dela eta, filma oso gutxi ikusi izan da gure inguruan. Zabalak zeluloidean egindako ekoizpena urria da, daukan kostu handiagatik. Bideoak egiten hasi zen berehala, irudi mugikorrarekin filmatzen eta esperimentatzen jarraitu ahal izateko, independentzia osoz eta inori azalpenik eman beharrik gabe, hori baitzen amesgaiztotik handiena. *Axuten* ondoren gaur egunera arte ekoiztitako filmak esperimentazio-mailagatik nabarmentzen dira, eta alderdi hauek dituzte oinarrian: narrazio-egitura linealik ez, irudiaren abstrakzioa erabiltzea eta zinema-kanon hegemonikoenetatik kanpoko soinuaren eta irudiaren uztardura. Horren harira, zinemak eta bideoak soinuarekin eta argazkigintzarekin hain garaiz hasitako esperimentazioan jarraitzeko aukera eman zioten Zabalarari. Beste alde batetik, jorratzen dituen gaiak ere koherenteak izan dira hasieratik gaur egunera arte. Horietako batzuek abiapuntu duten testuinguru sozialaren berri ematen dute. Horri dagokionez, erotismoarekin eta inauteri-giroarekin lotura duten gaiak sartzen ditu, esparru pribatua publikoaren aurrean, askatasuna errepresioaren aurrean, etika legearen aurrean jartzeko, eta abar. Argazkigintzako ekoizpenean, erretratuak eta urteetan zehar luze landutako serieak dira nabarmenenak, esate baterako, Iruni mugako hiri bezala eskaini ziona edo Euskal Herriko surfaren hastapenei buruzkoa. Argazki-erretratuak ere geroago bideoan landu zituzten, keinuen adierazkortasunari denbora eta mugimendua erantsiz.

Jose Mari Zabalak bizitasun handiz jarraitzen du lanean gaur egun, hainbat arlotan, hala nola ikus-entzunezkoetan, marrazketan, soinu-ekoizpenean eta argazkigintzan.



Erakusketaren ikuspegi orokorrak
Donuts 37,12, 1999 / *Programa #2* 2016 / *Maddi*, 1999. 27,18.






Ikuspegi orokorra
Latino Tanz. 3' (Fotograma)




Klik. 9'
Manchas. 2'



Ikuspegi orokorra



Mendibil-go Magnolia (2015-16).



Videographos (1986)



Ikuspegi orokorrak



Hondartza, 2014-2015. 3 ordu 50 minutu.